MATEMATIKA

Hirugarren Maila

1. MULTZOEN HASTAPENAK. GOGORAZKETA

1.1 — Joan den Ikastaroan ikasi genuenez, ikasle-talde batek, esate baterako, MULTZO bat osatzen du; artalde batek ere, ardi-talde bat delako, beste MULTZO bat osatzen du; eta, era berean, zeure zorroan daramazkizun iburuek, Eguzkiaren inguruko planetek, etxeko arrainontzian dituzun arraintxoek, eta beste edozein gauza-mordok, MULTZO bana osatzen dute.

MULTZOA, hitz batez, edozein gauza edo elemendu **sorta** da.

Hementxe, goiko aldean, gonbarazio batez, Bilbo-ko Atletik delakoa ikus dezakezu: hamaika fubolari dituzu ilaran, eta hamaikok MULTZO bat osatzen dute. Multzo hori nahi dugun bezala bataia dezakegu, «A» multzoa esate baterako.

Hortxe ere, goiko aldean, Ondarrabi-ko treinerua. Treineruko hamalau arraunlariek MULTZO bat osatzen dute; eta hori «T» dei dezakegu, edo «O», edo nahi dugun letraz edo ikurrez.

DONOSTIA

Era berean, azkenekorik, «Donostia» hitzaren zortzi letrek multzo bat osatzen dute: D-O-N-O-S-T-I-A.

1.2 — Nola idatz multzo bat?

Oroi zaitez, igaz ikasia zenuen-eta.

Alde batetik badugu **«Euler-Venn-en Diagrama»** deritzana:

Aegia: elemenduak banan-banan idatzi edo marraztu ondoren, soka batez multzoa inguratzea.

Eta bestetik badugu **giltzazko** idazpidea:

$$E = \{ D, O, N, O, S, T, I, A \}$$

Alegia: elemenduak banan-banan kakotxen artean idatzi, eta dena bi giltzaren artean hestea.

Mutzo baten elemenduak bi modutara adieraz daitezke:

1/ BANAKETAZ: multzoko elemendu **guztiak,** banan-banan emanez:

A = { astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata, igandea }

2/ EZAGUPIDEZ, multzoko elemenduen EZAGUGARRIA emanez:

A = { aste-egunak }

1.3 — Nola idazten da elemendu bat multzo batetan dagoela? Nola idazten da, alderantziz, ez dagoela?

Hau ere ikasia zenuen:

D $\in$ E (= «D, E-ren barrenean dago»)
O $\in$ E (= «O, E-ren barrenean dago»)
T $\in$ E

Eta, ere berean,

L $\notin$ E (= «L, ez dago E-ren barrenean»)
X $\notin$ E (= «X, ez dago E-ren barrenean»)
M $\notin$ E

Eman dezagun orain multzo hau:

A = $\{$ zakurra, etxea, llargia, zubia, pitxarra $\}$

Osa itzazu zerorrek ondoko berdintza hauek, falta den sinua erantsiz:

zakurra ... ... A
mahaina ... ... A
zubia ... ... A
katua ... ... A
zaldia ... ... A
Eguzkia ... ... A
maisua ... ... A

1.4 — Multzo baten BARRENEAN, menpeko multzoak hauta daitezke. Esate baterako:

E = { astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata, igandea }

Hauta ditzagun orain A-z hasten diren egunak: astelehena, asteartea, asteazkena. Egun hauek «A» multzoa osatzen dute:

A = { astelehena, asteartea, asteazkena }

A multzoko elemenduak, E multzoko elemendu dira; eta berdintza hauek idatz daitezke:

astelehena $\in$ A	;	astelehena $\in$ E
asteartea $\in$ A	;	asteartea $\in$ E
asteazkena $\in$ A	;	asteazkena $\in$ E

A multzoa, beraz, **osoki** dago E-ren barrenean; eta hau idatz daiteke:

A $\subset$ E (= «A, E-ren menpeko-multzoa da»)

edo alderantziz: E $\supset$ A (= «E multzoak, A menpeko multzoa biltzen du»)

Era berean, O-z hasten diren egunez beste multzo bat egin daiteke:

O = { osteguna, ostirala }

eta berdintza hauek idatz daitezke:

osteguna $\in$ O	;	osteguna $\in$ E
ostirala $\in$ O	;	ostirala $\in$ E

O, hitz batez, E-ren barrenean dago, E-ren menpeko multzoa da; eta berdintza hauek idatz daitezke:

eta $O \subset E$ («O, E-ren menpeko multzoa da»)
$E \supset O$ («E-k, O menpeko biltzen du»)

Era berean, berriz, beste bi multzo hauek hauta daitezke:

$L = \{$ larunbata $\}$ (L-z hasten diren egunen multzoa)

$I = \{$ igandea $\}$ (I-z hasten direnena)

Eta marrazki hau egin genezake:



Ohar garrantzitsu bat hartu behar duzu gogoan: E multzo jatorriak, eta multzo zatituak (A, O, eta abar) denera elemendu berberak dituztela. Hortaz: multzo bat menpeko-multzotan zatituz ere, ez dela elemenduen kopurua aldatzen.

Eman dezagun M multzoa:



Koloreen araberako menpeko multzoak moldatzen baditugu: elemenduen kopurua ez da aldatzen (beti **9** elemendu).



Kontutan har zazu bestalde, G menpeko multzoa (elemendu urdinez osatua) MULTZO bat dela; eta, ere berean, U eta B menpeko multzoak, MULTZO direla. Menpeko multzoak oro multzo dira.

Kasu honetan hau idatz daiteke:

$$G \subset M$$
$$U \subset M$$
$$B \subset M$$

Eta, hortaz, hiruak dira M-ren menpeko multzo.

Jakina: $\not\subset$ sinuak, aurkakoa adierazten du; alegia, **ez da** menpeko multzoa (= ez dago osoriko multzoaren barrenean).

1.5 — Aurreko punduan ageri den bezala, multzo batek elemendu bat bakarra izan dezake; edo bi, hiru, lau, bost, mila, eta abar.

Aste-egunen multzoari gagozkiolarik, esate baterako:

A	multzoak	3	elemendu	ditu
O	»	2	»	»
L	»	1	»	»
I	»	1	»	»

Elemenduen kopuru horri, multzoaren ZENBAKI edo KARDINALA deritza; eta honela idatz deiteke:

$Z\ (A) = 3$ edo-ta $\text{Kard}\ (A) = 3$

$Z\ (O) = 2$ edo-ta $\text{Kard}\ (O) = 2$

$Z\ (L) = 1$ edo-ta $\text{Kard}\ (L) = 2$

$Z\ (I) = 1$ edo-ta $\text{Kard}\ (I) = 1$

Eman dezagun orain beste multzo hau: M-z hasten diren aste-egunek osatua. Euskaraz horrelakorik ez dagoenez gero, M multzoak elemendurik batere ez du, eta M, multzoa **hutsa** da. Hau honela idatziko dugu:

$$M = \emptyset$$

eta $Z\ (M) = 0$ edo $\text{Kard}\ (M) = 0$.

Bi multzoren zenbaki edo kardinalak berbera direnean, multzo horiek ZENBAKIDE direla diogu.

Aurreko punduan, esate baterako:

$$Z\ (G) = 3$$
$$Z\ (U) = 3$$
$$Z\ (B) = 3$$

Hortaz, G, U eta B multzoak ZENBAKIDE dira; eta hori honela adieraziko dugu:

$$\boxed{G \sim U \sim B}$$

multzo sorta bat marraz ezazu eta zenbakidetzaren arabera taxu ezazu. Goian ikusten dituzun sinu horiek erabiltzen saia zaitez.

1.6 — Beste pundu bat ere ikusi genuen igaz: bi multzoren BILKETARENA.

Eman ditzagun A eta B multzoak:

A = 

B = 

Hauxe da bi multzo horien bilketa:

$A \cup B =$ 

eta bilketaren sinua hau da: $\boxed{\cup \quad (= «\text{bil}»)}$

$$\boxed{A \cup B = (A \text{ bil } B)}$$

Jakina da: $A \cup \emptyset = A$

(alegia: A bil multzo hutsa, edo A; multzo hutsak ez baitu elemendurik erasten).

Gauza bera ikus daiteke marrazki bidez:



1.7 — Hona hemen hiru multzo:

G = { Legazpia, Arrasate, Tolosa, Beasain, Leaburu }

B = { Dima, Elantxobe, Derio, Lekeitio, Ondarroa }

N = { Lizarra, Bigotzari, Agoize, Ilunberri, Azkoien, Urantzi }

a) Osa itzazu ondoko berdintzak:

Legazpia	$\in$	
Elantxobe	$\in$	
Ilunberri		B
Lekeitio		G
Agoize	$\notin$	
Elantxobe		B
Azkoien		G
Bigotzari	$\in$	

b) Marraz itzazu hiru multzook Euler-Venn-en diagramaren arabera:



d) Hauta itzazu G multzoan hiru menpeko multzo (esate baterako, «L» letraz hasten diren herriek osa dezakete menpeko multzo horietako bat); eta idatz itzazu horri buruzko berdintzak.

e) Hauta ezazu N multzoaren barreneko menpeko-multzo bat, eta idatz itzazu horri dagozkion berdintzak.

f) Idatz itzazu horien guztien zenbakiak; eta, horrelakorik baldin badago, idatz itzazu multzo zenbakideak.

1.8. — Begira itzazu multzo eta menpeko multzo hauek:



a) Idatz ezazu B, A-ren barrenean dagoela.

b) Idatz ezazu D, A-ren barrenean dagoela.

d) $B \cup D =$

e) Kard (B) =

Kard (D) =

Kard (A) =

f) Idatz ezazu «bai» ala «ez» ondoko berdintza hauetan:

$D \subset B$	$A \not\subset B$
$D \cup B = A$	$D \subset A$
$B \not\subset$	$B \subset A$
$A \supset B$	$A \cup B = D$
$A \subset D$	$B \cup D = A$

Oroi zaitez ikur hauen esanahiaz.

$$\in \qquad \cup \qquad \subset$$

$$\notin \qquad \qquad \not\subset$$

2 — E B A K E T A

2.1 — Igaz ere aztertu genuen pundu hau; baina, aurrera baino lehenago, EBAKETA zer den eta ebaketari buruz gerta daitezkean kasoak gogoraztea egokitzat jotzen dugu.

Eman ditzagun bi multzo hauek:



Zein elemendu dira BATERA A-koak **eta** B-koak? Ondoko hauek:



Lau elemendu hauek, beraz, A-koak **eta** B-koak dira; eta osatzen duten multzoari EBAKETA-MULTZO deritza.

Garbiako adieraztekotan, marraz ditzagun berriro A eta B multzoak:



eta eskuarki, beraz, hau da diagrama:



2.2 Zein da EBAKETAREN sinua? Ikasia dugu hau ere: $\cap$. Lehengo ebaketa, hortaz, honela idatziko genuke:

$\boxed{\cap \text{ (="ebak")}}$ $\boxed{A \cap B \text{ (= "A ebak B")}}$

Ikus dezakezunez, ebaketaren sinua ($\cap$) eta bilketarena ($\cup$) elkarren aurkariak dira; eta gisa da hala gertatzea, ebaketa eta bilketa matematika-eragiketa aurkariak direlako.

EBAKETA batez sortzen den multzoko elemenduak batera dira A-koak **eta** B-koak.

BILKETA batez sortzen den multzoko elemenduak, aldiz, A-koak **edo** B-koak dira.

2.3 Ikus ditzagun adibide batzuk.

Hona hemen bi multzo:

A = { Himalaya, Alpe, Ernio, Ahuñemendi, Apenino }

B = { Ernio, Oiz, Elgea, Ahuñemendi, Aizkorri }

A-multzoan, ageri denez, mundu guztian barrena sakabanaturik dauden mendi batzuk ditugu. B-multzoan, berriz, Euskal Herriko mendi batzuk.

Zein da A eta B multzoen EBAKETA? Alegia, zein mendik osatzen du E ebaketa; edo, oraindik ere beste era batez esateko, zein mendi da batera A-koa eta B-koa?

$$E = A \cap B = \{ \text{Ernio, Ahuñemendi} \}$$

2.4 Hona orain beste bi multzo hauek, eta egin dezagun bien arteko ebaketa:

$$M = \{ a, l, r, e, s, v \}$$

$$N = \{ p, q, a, b, s, o, m \}$$

$$P = M \cap N = \{ a, s \}$$

Edo, grafo batez azalduz:



2.5 — Egin dezagun orain beste bi multzo hauen ebaketa (lehengo multzo berberak dira, kasu):

$$N = \{ p, q, a, b, s, o, m \}$$

$$M = \{ a, l, r, e, s, v \}$$

$$N \cap M = \{ a, s \}$$

Ageri denez, beraz: $\boxed{A \cap B = B \cap A}$

Bi multzoren ebaketan, hitz batez, ebakizun diren multzoen ordenua ez da ansi.

2.6 — Azter dezagun orain kaso hau:



$$A \cap B = \varnothing$$

Alegia: ez dago elemendurik batere A-koa eta B-koa denik. Eta gisa da, B multzoa multzo hutsa baita. Hortaz, eskuarki mintzatzekotan, hau idatziko dugu:

$$\boxed{A \cap \varnothing = \varnothing}$$

2.7 — Eman ditzagun orain bi multzo hauek (lehenengoa banaketaz emana, bigarrena ezagupidez):

$A = \{$ Urumea, Nerbion, Laharraga, Zadorra, Errobi $\}$

$B = \{$ munduko ibaiak $\}$

A multzoko elemenduak (Euskal Herriko ibai batzuk) B-ko elemenduak dira; edo, bestela esateko, A B-ren barrenean dago, edo-ta B-ren menpeko multzoa da.

$$A \subset B$$

Zein da $A \cap B$ ebaketa?

Erantzuna erraza da: A multzo berbera.

Matematikazko idazkeraz, hortaz:

Baldin $A \subset B$

$$A \cap B = A$$

edo grafo batez:

2.8 Ikus dezagun azkenik beste kaso hau:

Zer ematen du $A \cap B$ ebaketak?

Ez baita elemendurik batere A-koa eta B-koa denik, A eta B-ren ebaketa multzo hutsa da:

$A \cap B = \varnothing$ («A ebak B, edo, multzo hutsa»)

Kaso horretan, A eta B multzo horiek, elkarrekin elemendurik batere ez dutelako, **multzo bereziak** dira.

Bi multzo berezi direlarik, hortaz, haien arteko ebaketa multzo hutsa da.

1. Hiru koloretako papera har ezazu eta kolore bakoitzean, hiruki, lauki eta zirkulu tamaina ezberdinetakoak ebaki ondoren, multzo batzuk osa itzazu.

2. Multzo hauek bildu nahiz ebaki egiten dituzularik, eragiketa bakoitzari dagokion ikurra erabiltzen saia zaitzez.

3. Menpeko multzoa, menperatzaile multzoa bera baino handiago izan ahal daiteke?

4. Orain arte ikusiak ditugun ikurrak Eite handitan, kolorezko paperean ebaki eta zure kuadernoko orrialde batetan itsas itzazu.

3. CARTESTAR ELKARKETA. ZATIKETA

3.1 — Eman ditzagun bi multzo hauek:





A multzoan hiru mutiko daude:

A = { Jakes, Mikel, Andoni }

eta B multzoan hiru txakur:

B = { Toni, Bat, Beltz }

Bakoitza txakur batekin ostera bat egitea erabaki dute. Zenbat modutara egin daiteke? Idatz ditzagun bikote guztiak:

(Jakes, Toni)
(Jakes, Bat)
(Jakes, Beltz)
(Mikel, Toni)
(Mikel, Bat)
(Mikel, Beltz)
(Andoni, Toni)
(Andoni, Bat)
(Andoni, Beltz)

Bederatzi bikote desberdin molda daitezke.

Grafo batez, beraz, hauxe da egoera:



Modu horretara sortu dugun multzoari A-ren eta B-ren CARTESTAR ELKARKETA deritza; eta honela idazten da:

$$\mathbf{A} \times \mathbf{B}$$

Gure kasoan bederatzi bikote ditu.

3.2 — Eman ditzagun beste bi multzo hauek:

$$M = \{ a, n, p, r, s \}$$
$$N = \{ b, d, o, q \}$$

eta bila ditzagun $M \times N$ multzoko elemenduak:

$$M \times N = \{ (a, b), (a, d), (a, o), (a, q), (n, b), (n, d), (n, o), (n, q), (p, b), (p, d), (p, o), (p, q), (r, b), (r, d), (r, o), (r, q), (s, b), (s, d), (s, o), (s, q) \}$$

Bi multzoren cartestar elkarketak, MULTZO BAT sortzen du; eta multzo hori, binaka loturik, M eta N-ko elemenduak elkarturik sor daitezkean BIKO GUZTIEK osatzen dute. Beraz cartestar elkarketa elemenduak modu berezi batez BINAKATUZ erdiesten da.

3.3 — Bigarren cartestar elkarketa hau beste modu batera irudi daiteke:



Multzoak, hortaz, $5 \times 4 = 20$ bikote ditu. Eta eskuarki hau idatz daiteke:

$$Z(A \times B) = Z(A) \times Z(B)$$

Gure kasoetan:

(3.1) .... $3 \times 3 = 9$ bikote.

(3.2) .... $5 \times 4 = 20$ bikote.

3.4 — Egin dezagun beste cartestar elkarketa hau:

$M = \{ a, b, c, d, e, f \}$

$N = \{ A, B, C, D \}$

M $\times$ **N** beste multzo berri bat da. Elemenduak bilatzeko, grafo bat egin dezagun:



$$Z\ (M) = 6$$

$$Z\ (N) = 4$$

beraz, $Z\ (M \times N) = 6 \times 4 = 24$ bikote.

Edo beste modu batez:



3.5 — Har ditzagun orain M eta N multzo berberak, eta egin dezagun:

$$N \times M$$

Zer lortzen da? Ikus dezagun grafo baten bidez:



eta jar ditzagun elemenduak elkarren parean:

$M \times N$	$N \times M$
(a, A)	(A, a)
(b, A)	(A, b)
(c, A)	(A, c)
(c, B)	(B, c)
....	....

Sortzen diren bikoteak EZ DIRA BERBERAK, nahiz lehen ikustaldian antz handia izan (ez da gauza bera: Andonik Piarres hil du / Andoni Piarresek hil du; ezta beste hau ere: A handiago da B baino, B handiago da A baino). Cartestar elkarketari gagozkiolarik, beraz, hau idatzi behar da:

$$M \times N \neq N \times M$$

3.6. Era berean joka daiteke zenbakiez. Eman ditzagun bi multzo hauek:

$$X = \{1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8\}$$
$$Y = \{1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8\}$$

eta egin dezagun



Osa zazu zeuk X x Y elkarketari dagokion eskema hau (Des Cartes-en geometrian oso ezaguna).

Zenbat bikote du?

$$Z\ (X) = 8$$

$$Z\ (Y) = 8$$

$$Z\ (X \times Y) = 8 \times 8 = 64 \text{ bikote.}$$

Ez zazu ahantz:

Y × X ez da multzo bera

Zergatik ez? Froga zazu zerorrek.

3.7 — Zer multzo ematen du **A** × ∅ cartestar elkarketak?

Sortu behar den multzoko elemendu bakoitza **hutsa** da. Beti, beraz:

$$\mathbf{A} \times \varnothing = \varnothing$$

3.8 — A × A multzoari A^2 (= «A bi») deritza; eta beronen elemenduak hauek dira:



$A^2 = \{(a, a), (a, b), (a, c), (b, a), (b, b), (b, c), (c, a), (c, b), (c, c)\}$

A^2 multzo berri honek **bederatzi** bikote ditu kaso honetan:

$$Z(A) = 3$$

$$Z(A) = 3$$

$$Z(A \times A) = 3 \times 3 = 9 \text{ bikote}$$

3.9 — Ikus dezagun orain multzo baten ZATIKETA zer den.

Eman dezagun M multzo hau:



eta molda ditzagun A eta B menpeko multzoak:



Bi menpeko multzo horietaz, menpeko multzo direnez, hau idatz daiteke:

$$A \subset M$$
$$B \subset M$$

Eta, kaso honetan, beste hau ere esan daiteke:

$$A \cup B = M$$

Beste alde batetik (ikus eskema) hau ere idatz daiteke:

$$A \cap B = \varnothing$$

Hau da: A ta B bi **menpeko multzo «berezi»** dira (lehengo ikaskaian esan dugunez).

A eta B, beraz, M multzoaren ZATIKETA BATEN EMAITZA DIRA.

Molda ditzagun orain, aldiz, E eta F menpeko multzoak:



Bi menpeko multzo hauetaz ere, menpeko multzo direnez, hau idatz daiteke:

$$E \subset M$$
$$F \subset M$$

baita $E \cup F = M$

Baina, kaso honetan, $\mathbf{A \cap B \neq O}$

Hain zuzen ere: $A \cap B = \{ \blacksquare \}$

E eta F menpeko multzook **ez dira menpeko multzo bereziak;** eta hortaz

E eta F menpeko multzoak EZ DIRA ZATIKETA BATEN EMAITZA.

3.10 — Beste adibide bat.

Eman dezagun E multzoa:

E $=$ {astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata, igandea}

eta gogoan har ditzagun bi menpeko multzo hauek:

S $=$ {astelehena, asteazkena, osteguna}

T $=$ {asteartea, osteguna, larunbata}

E-ren ZATIKETA egin ote dugu?

$$S \subset E$$
$$T \subset E$$

Baina $S \cap T =$ {osteguna}

eta $S \cup T \neq E$

S eta T menpeko multzoak EZ DIRA MULTZO BEREZIAK, ETA EZ DUTE **E** OSATZEN; hortaz, S eta T **ez dira** E-ren zatiketa baten emaitza.

Gogoan har ditzagun orain beste bi menpeko multzo hauek:

L = { astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala }

F = { larunbata, igandea }

L eta F, E-ren menpeko multzoak dira; alegia:

$$L \subset E$$

$$F \subset E$$

baita $L \cup F = E$

Beste alde batetik:

$$L \cap F = \varnothing$$

Beraz, kaso honetan, L eta F, E-ren ZATIKETA baten emaitza dira.

4. ELKARPIDEAK

4.1 Eman ditzagun bi senar-emazte:

1 - Ibon Latsaga / Josune Etxebarria

2 - Tomas Camblong / Eusebi Andueza

Eta idatz dezagun, gezi (azkon) baten bidez, nor norerkin ezkondua den:

Ibon Josune-rekin ezkondu da
Josune Ibon-ekin »
Tomas Eusebi-rekin »
Eusebi Tomas-ekin »



Lau bikote hauek idatz genitzake, hortaz:

(Ibon, Josune)
(Josune, Ibon)
(Eusebi, Tomas)
(Tomas, Eusebi)

Kaso honetan, beraz, izen bakoitzak BI gezi ditu: bata irteten, bestea iristen.

Lotura-mordo horri ELKARPIDE deritza, eta MULTZO BAT da; eta, ageri denez, multzo baten BARRENEKO elemenduen arteko loturak adierazten ditu.

4.2 — Eman dezagun orain berriz beste kaso hau: Andoni Harrieta hiru seme-alabaren aita da, eta hiruon izenak hauek dira: Joanes, Oier, eta Isabel. Marraz dezagun, gezi batez beti, «...ren aita da» elkarpidea:



eta elkarpideak bikote hauek ditu, beraz:

(Andoni, Joanes)

(Andoni, Oier)

(Andoni, Isabel)

Andoni Joanes-en aita izateak, ez dakar alderantziz ere Joanes Andoni-ren aita denik! Beraz hemen geziek ez dute lehenagoko punduan zuten itxura. Elkarpide mota honek beste modu batera lotzen ditu F multzoko elemenduak: geziak irten egiten dira (Andoni-gandik), ala iritsi egiten dira (joanes, oier eta Isabel-engana).

4.3 — Egin ditzagun orain B^2 eta F^2 cartestar elkarketak. Badakizu $B^2 = B \times B$; eta $F^2 = F \times F$.

Ez dukezu ahantzi bikote-multzo horiek nola sortzen diren, aurreko ikaskaian ikusiak dituguta.

$$B = \{ \text{Ibon, Josune, Tomas, Eusebi} \}$$

$$B^2 = B \times B =$$

$$\{ \text{Ibon, Josune, Tomas, Eusebi} \} \times \{ \text{Ibon, Josune, Tomas, Eusebi} \}$$

Eta Cartestar elkarketa eginez gero:

(Ibon, Ibon)	**(Ibon, Josune)**	(Ibon, Tomas)	(Ibon, Eusebi)
(Josune, Ibon)	**(Josune, Josune)**	(Josune, Tomas)	(Josune, Eusebi)
(Tomas, Ibon)	(Tomas, Josune)	(Tomas, Tomas)	**(Tomas, Eusebi)**
(Eusebio, Ibon)	(Eusebi, Josune)	(Eusebi, Tomas)	**(Eusebi, Eusebi)**

Hots, 4.1 punduan eman dugun elkarpideak (E bataia dezagun) lau bikote zituen:

E = {(Ibon, Josune), (Josune, Ibon), (Tomas, Eusebio) (Eusebi, Tomas).}

Eta bikote hauek berak goiko eragiketan letra beltzez idatzirik daudenez gero berdintza hau idatz daiteke $E \subset B^2$

Edo beste modu batez esateko, B multzoaren barrenean egin daiteken ELKARPIDEA, BETI DA B^2 MULTZOAREN, hots, KARTESTAR ELKARKETAREN MENPEKO MULTZO.

Era berean 4.2 punduan eman dugun elkarpidea F Cartestar elkarpideari buruz egoera berean dago.

Bila dezagun aurrenik $F^2 = F \times F$ multzoa; alegia F eta F berberaren Cartestar elkarketa. Eta hau dugu:

$F^2 = F \times F =$ (Andoni, Joanes, Oier, Isabel) $\times$ (Andoni, Joanes, Oier, Isabel). Eta Cartestar elkarketa eginez gero:

{(Andoni, Andoni)	**(Andoni, Joanes)**	**(Andoni, Oier)**	**(Andoni, Isabel)**
(Joanes, Andoni)	(Joanes, Joanes)	(Joanes, Oier)	(Joanes, Isabel)
(Oier, Andoni)	(Oier, Joanes)	(Oier, Oier)	(Oier, Isabel)
(Isabel, Andoni)	(Isabel, Joanes)	(Isabel, Oier)	(Isabel, Isabel)}

16 bikote horietako 3 (letra beltzez idatzirik ditugunak) 4.2 puntuan adierazi dugun elkarpideari dagozkio. Beraz matematikazko idazkeraz.

$$E \subset F^2$$

Edo, beste era batera esateko, F multzoaren barrenan egin daiteken ELKARPIDEA BETI DA F MULTZOAREN $F \times F = F^2$ KARTESTAR ELKARKETAREN MENPEKO MULTZO.

4.4 — Eman dezagun orain F multzoko pertsonek adin hauek dituztela:

Andonik	44 urte
Joanesek	11
Oierrek	9
Isabelek	4

Adinari buruz, hortaz, badago F multzoan lotura mordo bat; eta hau esan dezakegu:

Andoni	zaharrago da	Joanes	baino
Andoni	»	Oier	»
Andoni	»	Isabel	»
Joanes	»	Oier	»
Joanes	»	Isabel	»
Oier	»	Isabel	»

Sei lotura, beraz. Egin dezagun lotura-multzo honen grafoa:



edo, bikote-multzo gisa:

E = { (Andoni, Joanes), (Andoni, Oier), (Andoni, Isabel), (Joanes, Oier), (Joanes, Isabel), (Oier, Isabel) }

Aski dugu 4.3 punduan egin dugun F^2 cartestar elkarketa begiratzea, berriz ere

$$\mathbf{E \subset F^2}$$

idatz daitekeala ulertzeko; sei lotura horiek hantxe baitude.

4.5 — Eman ditzagun hiru alimale hauek:

A

Dakigunez: balea azkarrago da legatza baino

balea » bokarta »

legatza » bokarta »

Beraz, elkarpide honi E baderitzazu, hau idatz dezakezu:

$$E = \{ (balea, legatza), (balea, bokarta), (legatza, bokarta) \}$$

eta grafo batez:



Egin dezagun $A^2 = A \times A$ cartestar elkarketa:

$A^2 = \{$ (balea, legatza, bokarta) (balea, legatza, bokarta)

(balea, balea), **(balea, legatza)**, **(balea, bokarta)**,

(legatza, balea), (legatza, legatza), **(legatza, bokarta)**,

(bokarta, bolea), (bokarta, legatza), (bokarta, bokarta) $\}$

E elkarpidea osatzen duten hiru loturak letra beltzez idatzi ditugu. Eta hau idatz dezakegu, beraz:

$$E \subset A^2$$

4.6 Eman dezagun orain L multzoa:

$$L = \{ 3, 5, 7, 12, 15 \}$$

3 txikiago da 5 baino, 3 txikiago da 7 baino, eta abar. «Txikiago» ideia hori adierazteko egin dezagun diagrama hau:



(**hamar** gezi ditu)

Eta bikote mordo gisa, hau dugu:

$E = \{ (3, 5), (3, 7), (3, 12), (3, 15), (5, 7), (5, 12), (5, 15), (7, 15), (12, 15) \}$

Froga zazu zerorrek, kaso honetan ere:

$$E \subset L^2$$

4.7 — Eman dezagun orain «EIBAR» hitza. Gauza ageria da E hizkia I hizkia baino lehenago datorrela, A hizkia R baino lehenago, eta abar. Egin dezagun **lehenago** elkarpide horren grafoa:



Berriz ere, **hamar** bikote ditu elkarpideak. Idatz itzazu:

E = (,), ('), eta abar.

4.8 — Gaur eguraldi ona dago, eta amak Xabier eta Luken muttikoak hondartzara eramatea erabaki du, eta han mainatzera. Xabier eta Luken ez dira gauza beren buruz uretara joateko, eta amak berak eraman behar ditu, amak, beraz, bere burua ere mainatuz.

Nola adieraziko dugu hori grafo baten bidez?



eta multzo gisa:

E = { (ama, ama), (ama, Xabin), (ama, Luken) }

Kaso honetan, beraz, gezi batek atzera bezala egiten du; eta irten den elemendu berberera bihurtzen. Beste elkarpide-mota bat soma dezakegu, beraz.

4.9 — Eman dezagun X multzo hau:

eta marraz dezagun, gezi bidez, zein irudik duen **eite** berbera; eta grafo hau lortuko dugu:



12 lotura, beraz.

Egin dezagun orain beste grafo bat **kolore berbera** duten irudiak elkartzeko:



Alegia, **18** lotura.

4.10 — Azter dezagun beste kaso hau. Ander Iturzaheta-ren fameliak bi seme ditu: Piarres eta Manex; eta Beñat Iturzaheta-ren fameliak (Ander eta Beñat anaia izanik) hiru alaba: Josune, Klara eta Monika. Bostak elkarrekin daude gaur. Egin dezagun **lehengusu-tasun** horren grafoa:



12 lotura.

Idatz dezagun:

E = { (Piarres, Josune), (Piarres, Klara), (Piarres, Monika),
(Manex, Josune), (Manex, Klara), (Manex, Monika),
(Josune, Piarres, (Josune, Manex), (Klara, Piarres),
(Klara, Manex), (Monika, Piarres), (Monika, Manex) }

$L^2 = L \times L$ cartestar elkarketan, $5 \times 5 = 25$ bikote ditu.

4.11 — Ikusi dugunez M multzo baten barreneko elemenduen artean, anitz elkarpide-mota gerta daiteke. Hona hemen adibide batzuk:

1. —



2. —



3. —



4. —



Idatz itzazu zerorrek lau elkarpide horiei dagozkien lotura-bikoteen multzoak:

1. —

2. —

3. —

4. —

5. BI MULTZOREN ARTEKO ELKARPIDEAK

5.1 — Eman ditzagun bi multzo zenbakide hauek:



Oroi zaitez: Z (A) = 3

Z (B) = 3. Horregatik diogu zenbakide direla.

Minu katua Iñaki-rena da,
Pizkor txakurra Karmele-rena da,
Ttipi akuria Mikele-rena da.

A eta B multzoen artean, hortaz, badago lotkiarik. Bi multzo horien arteko lotkia edo lotura horri MULTZO ARTEKO ELKARPIDE deritza;; eta honela marraz daiteke:



Ekarpide honetan, hortaz, **BI** multzotako elemenduak lotzen dira.

Eman ditzagun orain beste bi multzo hauek:



Z (A) = 4 eta Z (B) = 3. Ez dira multzo zenbakideak. Halere badago lotura mordo bat. Baina oraingoan «Joseba» elementudtik ez da gezirik batere irteten: Josebak abererik ez baitu.

— Eman ditzaun F eta G multzoak:



Eiteari dagokionez, bien artan dagoen ELKARPIDEA honela adieraz genezake:



eta dagozkion bikoteak idatziz gero:

Kolorearen araberako loturak adierazten baditugu, berriz, beste elkarpide bat (= beste bikote multzo bat) lortuko genuke. Egizu zerorrek:



eta elemendu-bikoteak idatziz gero:

E = { (,), (,), ... }

5.3 — Eman ditzagun beste bi multzo hauek, eta elemenduen artean dauden loturak. Alegia: katuak arraina maite du, zakurrak hezurra, behiak belarra, eta saguak gazta.



Bi multzo horiek, LAUNA elemendu dituztelako, zenbakideak dira; eta, horrez gainera, kaso honetan gezi BAKAR bat irteten da elemendu bakoitzetik.

5.4 — Eman ditzagun A eta B multzoak, berriak. Bien artean badago lotura nabarmen bat: B multzoko elemenduak aurkitzeko, aski da A-ko elemenduei + **2** *erasta*:



Berriz ere, hortaz, lehenengo multzoko elemenduetatik gezi BANA irteten da.

Begira itzazu orain beste bi multzo hauek:



Lehenengo multzoko elemenduen BIKOITZA dira bigarrenekoak. Multzo hauen artean beraz, elkarpide bat dago; eta elkarpide horrek badu lege edo ezagugarri nabarmen bat. Jatorrizko multzoko elemendu bakoitzetik, bestalde, gezi BAKAR BAT irteten da.

Aurrerago ikasiko dugunez, multzoen arteko elkarpide mota honek, eta hau oinarri sor daitezkeanek, garrantzi handia dute multzoen teorian.

5.5 — Kontutan har zazu hau ez dela beti gertatzen. Eman dezagun A multzoa, orain aste egunek osatua:

A = { astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata, igandea }

Haserako hizkiez beste multzo bat egin dezakegu:

H = { a, o, l, i }

Lehenengo gauza, bi multzo hauek ez dira zenbakide:

Z (A) = 7

Z (B) = 4

Eta bigarrena, lotura horiek **diagrama batez irudituz** gero, hau agertzen da:



Geziak ez dira jatorrizko multzoko elemenduetatik BANA-BANA irteten.

5.6 Loturen multzoa taula batetan jarriz gero, berriz, diferentzia horiek nabarmentzen dira.

5.2. — Punduko elkarpideak, esate baterako, taula hau ematen du:



Baina 5.4 punduko elkarpidek, aldiz, beste hauek, oso desberdin:



eta



Taula hauek, dena dela, ez daude INOIZ zeharo beterik; edo, beste era batera esateko:

$$E \subset A \times B$$

Alegia, A eta B bi multzotako elemenduen arteko EDOZEIN ELKARPIDEZ esan daiteke beti dela E elkarpide hori $A \times B$ cartestar elkarketaren menpeko multzo.

Ohar hau: Cartestar elkarketak, gorago ere sana dugunez, era guztietako bikote GUZTIAK biltzen dituenez gero, taula BETEA ematen du beti.

5.7 — Hona orain kaso hau:



Zer da elkarpide hori? Kaso honetan, ikus dezakegunez, bi multzook BAT ETA BERBERA dira; eta elkarpidea, hortaz, multzo BAKAR baten BARRENEAN gertatzen da.

$$E = \{ (\text{Mikel, Piarres}), (\text{Piarres, Kepa}), (\text{Kepa, Mikel}) \}$$

Elkarpidea grafo batez adieraziz gero, hau genuke:



Funtsean, hortaz, lehenagoko ikaskaian ikusi genituen elkarpideak eta oraingoak, ez dira arras desberdinak. Baina orain BI multzotako elementuen arteko elkarpideez arduratzen ari gara.

5.8 — Hona hemen eskolako egoera bat:

Mikelek liburu urdin bat du
Xantik liburu urdin bat du
Emiliok liburu hori bat du
Maijanak bere liburua galdu du
Koldok bi liburu ditu: bata berdea, bestea morea
Kepak bere liburua galdu du

a) Egizu marrazki bat, bi multzo horien arteko elkarpidea adierazteko:



(neska-mutilen multzoa) (liburuen multzoa)

b) Bete zazu orain ondoko taula hau: elkarpideari dagozkion bikote-hutsuneetan, jar zazu gurutze bat:



5.9 — Horra hor H multzoa.



Elemendu bakoitzari 3 erantsiz, sor zazu J multzoa; eta marka itzazu, gezi bidez, bien artean dauden elkarpideak.

5.10 — Elkarpide batek bikote hauek ditu:

E = { (a, **b**), (a, **t**), (i, **m**), (i, **b**) eta (i, **t**) }

a) Marraz ezazu Euler-Venn-en Diagrama, eta gezi bidez erakuts ezazu elkarpidea.

b) Egizu hizki beltzen eta hizki gorrien arteko cartestar elkarketa, taula bat osatuz.

d) Erakuts ezazu kaso honetan ere:

$$E \subset B \times \mathbf{G}$$

6. ZENBAKUNTZA.

6.1 — Eman dezagun A multzoa:



Nola egin genezake hor dagoen multzoa zenbatzeko? Nola idatz dezakegu emaitza? Igaz ere problema hau aztertu genuen.

Eman dezagun eskuineko eskuaz zenbatzen dugula, eta esku bakoitzaz menpeko multzo bat (= bosteko bat kaso honetan) egiten dugula. Musean ari direnek hauxe egiten dute.

Orduan multzo horren taxuketan hau lortuko dugu:



Horra hor multzo horren lehenengo taxuketa bat: bostetako sei menpeko multzo gorri ditugu, eta hiru ale libro.

Menpeko multzo gorri horiek, era berean, bosnaka bil ditzakegu, beti eskua oinarri; eta hau izango genuke:



edo diagrama erraztuz:



eta oraindik ere xinplekiago:



eta areago:

5// ... Z (A) = 113.

— Gogoan har dezagun, alderantziz, **113** horrek zer adierazten duen. Eskuinetik ezkerrera joanez:

3 = hiru ale libro, hiru elemendu 

1 = bosteko bat libro, alegia = 

1 = bost, bosteko, bat 

Hortaz: Z (A) = hogei-ta-hamairu (hamarreko oinarrian).

— Eman dezagun beste multzo bat, eta egin dezagun elemenduen zenbaketa. Baina oraingoan beste oinarri bat hartuko dugu: 4-a, eman dezagun:

B



Zer dugu, hortaz?

— Hiru elemendu lotu gabe

— Lauko bat libro (gorriz marrazkian)

— Eta lau lauko bat (hor urdinez)

Multzoaren kopurua edo kardinala, beraz, hau da:

Z (B) = 113 4// (alegia: 4-a oinarri)

Eta alderantziz, ikus dezagun zein kopuru dagokion, laua oinarri idatzirik, 113 zenbakiari.

113, beraz: 3 = ale libro, 

1 = lauko bat 

1 = lauko lauko bat 

Beraz: 4// 113 = hogei-ta-hiru. **(Hamarreko oinarrian).**

6.3 — Har dezagun D multzoa:



eta idatz dezagun dagokion zenbakia lehenengo oinarrietan: 2, 3, 4... 9.

a) Har dezagun 2-a oinarritzat. Hortaz, BINA taxutuko ditugu elemenduak; BINA bi aletako menpeko multzoak; eta BINA, era berean, ondokoak. Eta hau lortuko dugu:



edo bestela idatzirik:

				+
1	1	1	0	1

Beraz: 2// Z = **11101**.

b) Har dezagun orain **3-a oinarritzat;** eta piloak eta menpeko multzoak **hiruna** sortuz, hau izango dugu:



			+
1	0	0	2

3// Z = **1002.**

d) Izan bedi 4-a oinarria:



○	○	+
1	3	1

4// Z = **131**

e) Har dezagun orain **5-a** oinarri (musean bezala):



○	○	+
1	0	4

5// Z = **104**

f) Har dezagun **6-a** oinarri:



○	○	+
	4	5

g) Har dezagun **7-a** oinarri:



○	○	+
	4	1

h) Zortzia **(8-a)** oinarri oraingoan:



○	○	+
	3	5

i) **9-a** oinarri:



○	○	+
	3	2

j) HAMARRA oinarri. Hauxe da gure zibilizazioan gidari hartu dena; eta beraz kalean, liburuetan, eta non-nahi erabili ohi dena:





6.4 — Hamar baino goragoko zenbapideak erabil litezke. Aski da horretarako sinu berriak asmatzea.

Har dezagun, esate baterako HAMASEIA oinarri. Lehendabiziko kopuruentzako badugu sinu ezagunik: arabitarrenak, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9. Zer egin hurrengoetan? Asma ditzagun falta direnak:

hamar	=	L	(hamar «10» idaztea, hamarra oinarri hartzea da)
hamaika	=	M	
hamabi	=	N	
hamairu	=	P	
hamalau	=	Q	
hamabost	=	R	

Eta egin dezagun orain HAMASEINA-ko taxueta:





eta HAMALAUA hartuz gero:





6.5 — Ikus dezakezunez, beraz, kopuru edo keta berberari, nahi hainbat (= hautatutako zenbapide hainbat) idazkera dagokioke; eta 31, 23, 47, eta abar, zenbakiek, zenbakuntzaren OINARRIA EZAGUTU ARTE EZ DUTE, berez, EZER ZEHATZIK adierazten.

Jakina, gure zibilizazioan, ezer berezirik esaten ez bada, zenbakiek HAMARRA dute oinarri. Baina, ikusi dugunez, nahi dugun bezala egin dezakegu menpeko multzoen taxuketa eta banaketa.

Horretaz ongi jabetzeko, hementxe dugu A multzo hau:



Har itzazu, segidan, eta zenbapidearen oinarritzat, 3-a, 5-a eta hamarra; eta idatz ezazu kopurua hiru zenbapide horien arabera:

3// Z =

5// Z =

hamarra// Z =

6.6 — Alderantziz orain, egin ditzagun ariketa hauek:

a) **6// Z = 124.**

Zein kopuru dagokio? Gogoan har dezagun horretarako zenbaki bat zer den. Eskuinetik ezkerrera:

4 — lau elemendu libro 

2 — bi seiko libro 

1 — sei seiko bat 

Beraz: Z = **berrogei-ta-amabi** (hamarra oinarritzat hartuz).

b) **5// Z = 124.**

Kasu: itxura bera izanagatik ere, kopurua ez da oraingoan lehenagoko barbera; oinarria orain **5** baita. Goazen eskuinetik ezkerrera:

4 — lau elemendu libro 

2 — bi bosteko libro 

1 — bost bosteko bat 

Beraz: **hogei-ta-hemeretzi** (hamarra zenbapidearen oinarritzat hartuz).

d) **3// Z = 201**

1 — elemendu bat libro

0 — hiruko librorik ez

2 — bi hiru hiruko



Z = **hemeretzi.** (Hamarra zenbapidearen oinarri).

6.7 — Bide beretik, bila itzazu zerorrek ondoko hauek:

4//	.... Z = 31		3//	.... Z = 21
5//	.... Z = 304		2//	.... = Z 101
7//	.... Z = 304		5//	.... Z = 202
2//	.... Z = 10011		5//	.... Z = 1000

6.8 — Nola egingo oinarriz aldatzekotan?

Esate baterako:

5// Z = 302

Nola idazten da Z hori, oinarritzat **7-a** hartuta?

Lehendabizikorik IRAKURRI (= aletu) egingo dugu Z = 302 delakoa. Eskuinetik ezkerrera:

2 — bi ale libro

0 — bosteko librorik ez

3 — hiru bost bosteko



Z = **hirurogei-ta-hamazazpi** (zenbapidearen oinarritzat hamarra hartuz).

Marraz dezagun:



eta molda ditzagun orain ZAZPINA-ko menpeko multzoak.





7// hortaz, **Z = 140**

6.9 — Egizkitzu zerorrek zenbapide-oinarri aldaketa hauek.

5// Z = 113,	idatz 6//	Z =	?
3// Z = 1012,	idatz 7//	Z =	?
7// Z = 203,	idatz 8//	Z =	?
2// Z = 10010,	idatz 5//	Z =	?

6.10 — Gure ohiko zenbapideak HAMARRA du oinarri. Beraz, ohiko zenbakietan hau dugu eskuinetik ezkerrera joanda:

lehenengo lumeroak, ALEAK edo banakoak adierazten ditu;
bigarrenak, HAMARREKOAK;
hirugarrenak, EHUNEKOAK;
laugarrenak, MILAKOAK; eta abar. Honetara:



Jakina, hortaz:

hamar ale = hamarreko bat
hamar hamarreko = ehuneko bat
hamar ehuneko = milako bat, eta abar.

Esate baterako: **1972.**

2-ak = bi ale;
7-ak = zazpi hamarreko; euskaraz, **hirurogei-ta-hamar;**
9-ak = bederatzi ehuneko; bederatzirehun;
1-ak = milako bat: mila;

hortaz :: mila ta bederatzirehun eta hirurogei-ta-hamabi.

Era berean: **7062.**

2-ak = bi ale
6-ak = [illegible] hamarreko, **edo** hirurogei;
0-ak = ehunekorik batere ez dagoela;
7-ak = zazpi milako, zazpi mila.

Hortaz: zazpi mila eta hirurogei-ta-bi.

Irakur itzazu ondoko zenbaki hauek:

6321	3065
3792	7421
4320	11098

7. BAKETA

7.1 — Eman ditzagun bi multzo hauek:



eta egin dezagun **A ∩ B** ebaketa:





Alegia: A eta B multzoak ez dira «multzo bereziak»

Azter dezagun orain Z (A) + Z (B) zenbakia.

$$Z\ (A) = 7 \quad \text{eta} \quad Z\ (B) = 8$$

Hortaz: $Z\ (A) + Z\ (B) = 7 + 8 = 15.$

Egin dezagun orain **A ∪ B** BILKETA, eta sortuko dugun multzo berria «M» bataia dezagun:

$$M = A \cup B$$



Azter dezagun Z (M). Zenbat elemendu du M multzo berri horrek? Bana ditzagun:

$$Z\ (M) = Z\ (A \cup B) = 11$$

Beraz, A eta B multzoak BEREZIAK EZ DIRELAKO:

$$Z\ (A \cup B) \neq Z\ (A) + Z\ (B)$$

7.2 — Eman ditzagun orain, ordea, beste bi multzo hauek:



eta bila dezagun $P \cap R$.

Zerorrek ikus dezakezunez $P \cap R = O$

Alegia, P eta R multzoak BEREZIAK dira; beste modu batera mintzatuz, ez dute batere elemndurik berdinik.

Azter dezagun orain multzoen zenbakien arazoa:

$$Z\ (P) = 6 \quad \text{eta} \quad Z\ (R) = 8$$

$$\text{eta } Z\ (P) + Z\ (R) = 6 + 8 = 14.$$

Egin dezagun orain, lehen bezala, $S = P \cup R$.



eta bila dezagun S multzo berri horren zenbakia: $Z\ (S) = 14$.

Beraz, kaso honetan:

$$Z\ (P \cup R) = (P) + Z\ (R)$$

MULTZO BEREZIEN BILKETARI, HITZ BATEZ, BEROIEN ZENBAKIEN BAKETA DAGOKIO. Multzoen bilketak, beraz, eta eskuarki egin ohi diren baketak, pundu honetan dute beren berezgunea.

Horregatik erabiltzen dira bi sinu edo ikur desberdin:

$\cup$ bilketa

$+$ baketa

7.3 — Eman dezagun musean ari zarela, eta zure pundu-egoera hau dela (ohi bezala, bi babarrun-pilotan neurtua):

Bosteko

Bateko

eta azkeneko jokoan hau irabazi duzula:

handian	:	3 pundu
txikian	:	3 pundu
jokoan	:	6 pundu

Hamabi babarrun hauek hartuz, hau egin ohi duzu:



Eta beste batzutan, alderantziz, metroa TXIKIEGIA da. Zenbat metro dago Donostia-tik Bilbo-ra? Zenbat metro luze Ahuñemendiko mendi-kateak? Zenbat metro dago Lurretik Ilargira?

Hori dela-ta, METROA oinarri eta hamarra gidari, beste neurkin hauek asmatu dira:

dekametro	= dam	=	$1 \times 10 = 10$ m
hektometro	= hm	=	$1 \times 100 = 100$ m
Kilometro	= Km	=	$1 \times 1000 = 1000$ m
metro			
dezimetro	= dm	=	$1 : 10 = 0'1$ m
zentimetro	= cm	=	$1 : 100 = 0'01$ m
milimetro	= mm	=	$1 : 1000 = 0'001$ m

Kartoin baten bidez eta ondoko hau oinarritzat hartuz, molda zazu zerorrek Dezimetro bat, eta neur itzazu geroko luzerak:



1m = 10 dm	1dm = 0'1 m	1cm = 0'01 m	1mm = 0'001m
1m = 100 cm	1dm = 10 cm	1cm = 0'1 dm	1mm = 0'01dm
1m = 1000 mm	1dm = 100 mm	1cm = 10 mm	1mm = 0'1 cm



Ezkerretara dituzun neurri horiek. saia-zaitez -dm.- etan eta -mm- etan ematen.

Lehena lortzeko, bat gorago denez, hamarreko banaketa egin beharko duzu.

Bigarrena erdiesteko, aldiz, bat beheragoa denez hamarreko biderketa.





Ezkerretara dituzun neurri horiek

cm - etan

dm - etan

m - etan

eman ditzazun eskatzen zaizu.

(Gogoan har goragoko neurri batera jotzeko; hamarreko, ehuneko edo milako banaketa egin behar duzula.)





14.5 — Lotitzazu, gezi bidez, bi multzo hauen kideak:



14.6 — Osa zazu bigarren multzoa, neurkina erantsiz:

13 mm	→ 1,3 cm
280 mm	28 ___
3,2 dm	32 ___
270 mm	27 ___
1,1 cm	11 ___
1,2 dm	120 ___

14.7 — Jar zazu dena MILIMETROTAN:

32 cm →
1,42 dm →
13,8 cm →
1,31 m →
0,41 m →
3,2 cm →
142 cm →

14.8

1 km = 10 hm = 100 dam = 10.000 dm = 100.000 cm = 1.000.000 mm.

1 hm = 10 dam = 100 m = 1.000 dm = 10.000 cm = 100.000 mm.

1 dam = 10 m = 100 dm = 1.000 cm = 10.000 mm.

1 m = 10 dm = 100 cm = 1.000 mm.

1 dm = 10 cm = 100 mm.

1 cm = 10 mm.

Beraz:

km-tatik	hm-tara pasatzeko,	× 10
hm-tatik	cm-tara pasatzeko,	× 10.000

Osa itzazu zerorrek beste hauek

hm,	cm,	×
m,	mm,	×
dam,	cm,	×
km,	mm,	×
cm,	mm,	×

14.9 — Egizkitzu ariketa hauek:

2 km	=		cm
64 hm	=		dm
13 cm	=		mm
7 dam	=		dm
18 hm	=		m
73 km	=		mm
30 m	=		mm
800 dam	=		cm
70 cm	=		mm

14.10 — Era berean, baina alderantziz, hau dugu:

1 mm = 0,1 cm = 0,01 dm = 0,001 m = 0,0001 dam = 0,00001 hm =
= 0,000001 km.

1 cm = 0,1 dm = 0,01 m = 0,001 dam = 0,0001 hm = 0,00001 km.

1 dm = 0,1 m = 0,01 dam = 0,001 hm = 0,0001 km.

1 m = 0,1 dam = 0,01 hm = 0,001 km.

1 dam = 0,1 hm = 0,01 km.

1 hm = 0,1 km.

14.11 — Beraz,

cm-tatik m-tara pasatzeko, : 100

m-tatik km-tara pasatzeko, : 1.000

eta abar.

Kontutan har zazu hau:

km-tatik m-tara pasatzeko, × **1.000**; m-tatik km-tara pasatzeko, : **1.000**

cm-tatik mm-tara pasatzeko, × **10**; mm-tatik cm-tara pasatzeko, : **10**

dam-tatik cm-tara pasatzeko, × **1.000**; cm-tatik dam-tara pasatzeko, : **1.000**

km-tatik mm-tara pas. × **1.000.000**; mm-tatik km-tara pas, : **1.000.000**

eta abar. Legea beti berbera da.

kontutan har zazu ere beste hau:

× **10** :: 44 × 10 = 440; 67 × 10 = 670; 33 × 10 = 330; eta abar.
Hitz batez 0 erantsi dugu.

: 10 :: 440 : 10 = 44; 670 : 10 = 67; 330 : 10 = 33; eta abar. Hitz batez, 0 kendu dugu.

Gauza bera beti. Esate baterako:

× 10.000 :: 55 × 10.000 = 550.000. 10.000-ek 4 huts ditu, beraz 4 huts erasten.

: 10.000 :: 550.000 : 10 = 55. 4 huts kentzen.

Kakotxa dagoenean, KAKOTXA aldatzen da. Biderketa egitean ESKUIN-**aldera; eta banaketa egitean EZKER-aldera.**

456,6758	×	100	=	45667,58
456,6758	:	100	=	4,566758
3,05	×	1.000	=	3.050
4,26	×	10.000	=	42.600
0,016	:	10	=	0,0016
76,568	:	1.000	=	0,076568
55,32.	:	100	=	0,5532
0,01	×	10.000	=	100
0,6578	×	100.000	=	65.780
10,01	×	10	=	100,1
0,5	:	100	=	0,005
36	:	100	=	0,36
0,0005	×	100	=	0,05
5,000005	×	1.000.000	=	5.000.005

14.12 — Osa itzazu berdintza hauek:

3 cm	=		dam
8 mm	=		hm
14 dm	=		km

61 dm	=		hm
103 mm	=		hm
3 mm	=		m
68 dam	=		km
71 cm	=		km
46 cm	=		hm
0,3 km	=		m
0,5 m	=		cm
0,2 hm	=		dam
0,17 hm	=		dm
0,14 km	=		m
0,2 mm	=		km
0,34 km	=		mm
0,01 m	=		cm
0,08 km	=		cm

15. SISTEMA METRIKOA (II)

15.1 — Igaz ikasi zenuena ahaztu ez baduzu, KUBO bat zer den oroitzen zarateke:



Kuboak berdinak ditu ertz guztiak, baita sei aldeak ere berdinak.



1cm-tako ertzak dituen kuboari
ZENTIMETRO KUBIKO deritza.
Alboak = 1cm x 1cm. ditu =
= 1 zentimetro eremu



1dm-tako ertzak dituen kuboari,
DEZIMETRO KUBIKO deritza.
Alboak = 1dm x 1dm. ditu =
= 1 dezimetro eremu



1 m-tako ertzak dituen kuboari METRO KUBIKO deritza. Alboak = 1 m × 1 m ditu = = 1 metro eremu

15.2 — Azter ditzagun orain hiruon arteko matematika-herremanak. Har dezagun dm^3 («dezimetro kubikoa», alegia).



1 dm-tako ertzak **10 cm** ditu. Beraz, lehenengo kubotxo-mailan:
$10 \times 10 = 100$ (cm^3) daude (kubotxo bakoitzak 1 cm^3 bolumena du).

Bigarren mailan beste 100 kubo txiki daude. Hirugarrenean beste hainbeste. Eta abar.

(1)



Guztira, beraz, $10 \times 100 =$ **1.000** kubo txiki daude.

Hortaz: **1 dm^3 = 1.000 cm^3**

Era berean, aisa zerorrek aurki dezakezunez:

$$1 \ \mathbf{m}^3 = \mathbf{1.000} \ \mathbf{dm}^3$$

Eta alderantziz ere:

$$1 \ \text{cm}^3 = 0{,}001 \ \text{dm}^3$$
$$1 \ \text{dm}^3 = 0{,}001 \ \text{m}^3$$

15.3 — Bolumen neurriek, halere, funtsean horietxek izanik ere, beste izen batzuk daramazkite eskuarki; eta oinarritzat LITRO-a onartu da (euskara herrikoiaz «pinta» esan ohi dena); eta «L» hizkiaz adieraztea erabaki da.

L I T R O = dm³ = «1»

Buruz ikasazu, hortaz, ondoko irudi hau:



15.4 — Luzeretan ez-ezik, BOLUMENETAN ere, litroa oinarri, beste neurkin batzuk erabiltzen dira:

1 kilolitro	=	1 kl =	1.000 litro =	1.000 l
1 hektolitro	=	1 hl =	100 litro =	100 l
1 dekalitro	=	1 dal =	10 litro =	10 l

1 dezilitro	=	1 dl	=	0,1 l
1 zentilitro	=	1 cl	=	0,01 l
1 mililitro	=	1 ml	=	0,001 l

Lotitzazu, beraz,, honen arabera, ondoko multzotako barnera kideak:



15.5 — Gorago eman ditugun berdintzak gogoan hartuz, beraz, ondoko hau idatz daiteke:

$$1 \text{ m}^3 = 1 \text{ kl}$$
$$1 \text{ dm}^3 = 1 \text{ l}$$
$$1 \text{ cm}^3 = 1 \text{ ml}$$

Osa itzazu ondoko berdintzak



15.6 — PISU-NEURRIAK - Oinarritzat, berriz ere, METROA hartu da; eta hau esan da:

1 cm^3 urek GRAMO BAT pisatzen du

Bolumenen eta pisuen arteko lotura, beraz, URAK egiten du. Jakina denez, bestalde, olioa arinago da ura baino; eta merkurioa, aldiz, ura baino askoz astunago.

Gainerakoetan bezala sail honetan ere, beti GRAMOA oinarri, beste neurri batzuk asmatu dira:

1 tonelada	=	1 t	=	1.000.000	gramo
1 kintal		1 q	=	100.000	g
1 miriagramo	=	1 mag	=	10.000	g
1 KILOGRAMO	=	1 kg	=	1.000	g (hauxe da KILO esan ohi dena)
1 hektogramo	=	1 hg	=	100	g
1 dekagramo	=	1 dag	=	10	g
1 dezigramo	=	1 dg	=	0,1	g
1 zentigramo	=	1 cg	=	0,01	g
1 miligramo	=	1 mg	=	0,001	g

TONELADAK, beraz, MILA KILO ditu; eta KILOAK, berebat, MILA gramo *(eta toneladak, hortaz, miloi bat gramo)*.

15.7 — Urez betetako bolumenek eta pisuek, beraz, badute beren arteko lotkia:

1 m^3 (ur)	....	1 kl	....	1 t
1 dm^3 (ur)	....	1 l	....	1 kg
1 cm^3 (ur)	....	1 ml	....	1 g

eta, hau gogorazteko, on duzu irudi pare hau oso gogoan hartzea:



15.8 — Osa itzazu ondoko hauek:

33 l (ur, jakina)	330	hg
6,7 dal	670	
0,14 hl	140	
162 ml		g
37 cl		l
3.000 l		kl
3,218 l	321,8	
0,061 kl	61	
1,32 dm^3	132	
0,328 m^3		kg
1,12 l		m^3
0,22 dm^3		ml
7,21 l	dm^3	

15.9 — Ezar itzazu falta diren lotki-geziak:

15.10 — Zenbat pisatzen dute? (Hauta zazu ondoen deritzazun neurkina).

(urek) 1.314 l ... ...

2.300 ml ... ...

42.000 cl ... ...

31 m^3 ... ...

328 dm^3 . ...

427 cl ... ...

0,02 ml ... ...

0,016 m^3 ... ...

16. PLANOA - REKTA

16.1 — Har zazu paper orri bat, eta marka itzazu bertan, kolore gorriz, esate baterako, 50 pundu.



Ez dago inondik ere beterik. Erants ditzagun beraz beste 50 pundu, laranjak oraingoan.



Paper azala ez dago punduz beterik. Erants ditzagun beste 50 pundu, urdinak oraingoan.



Ez dago beterik. Beti ere pundu gehiago eta gehiago erants liteke. Paper-orri puska horretan, hortaz, INFINITU pundu ezar daiteke (nahi hainbat, eman daiteken edozein zenbakik adierazten duena baino gehiago).

PLANOA INFINITU PUNDUREN MULTZO BAT DA.

16.2 — Planoak, beraz, mugarik ez du. Plano osorik ez dago Izadian, ez zibilizazioan ere; hauetan aurkitzen direnek muga bat baitute.



Baina kartoin puska batek, esate baterako, plano bat zer den ongi adierazten du. Lau-atal edo puska bat da; eta geometrian planoak nolapait egin beharrez, era horretara adierazi ohi dira.











Planoen ezagugarritzat hizki handiak edo nagusiak erabili ohi dira: L, P, A, B eta abar.

Bila ditzagun plano batzuk:

a) Batez beste, ikasgelako atea plano bat da.

b) Zure liburuak dituen orrialdeak, planoak dira.

d) Dendako aurrekaldean dagoen berin zabalak, ongi adierazten du, bere gardentasunean bertan, plano bat zer den.

e) Euskal frontoin baten bi hormek, era berean, plano zer den ongi idarokitzen dute.

16.3 — Bila itzazu zuk bost plano zeure inguruko gauza ezagunen artean:

1. —

2. —

3. —

4. —

5. —

16.4 — Ikus dazegun orain REKTA zer den.

Har zazu erregela bat, eta marra zazu A-tik B-ra doan lerroa. Lerro hori REKTA da.



Zure mahainaren hegiak rektak dira, zure erregela rekta da, eletrika-hariak jasaten dituzten tantaiak rektak dira, Joanes-ek eta zuk tiratzen duzuelarik sokaren eitea rekta da, eta abar.

Lauak bezala REKTAK ERE, berez, ez du mugarik. B-tik eskuinaldera nahi den punduraino luza daiteke; eta A-tik ezkerraldera, nahi haina ere luza.

Nolapait marraztu eta ıduritu beharrez, helere, laua bezala, MUGATURIK agerrerazi ohi dira rektak.

16.5 — Eman dezagun AB rekta.

Eta eman dezagun 10 pundu gorri markatzen ditugula rektaatal edo puska horretan.



Rekta ez dago beterik. Erants ditzagun orain beste 10 pundu, berdez oraingoan.



Beteago agertzen da rekta, baina pundu gehiago erants liteke. Erants ditzagun 10 pundu urdin.

Oraindik ere pundu gehiago erants liteke.

Hitz batez: REKTA INFINITU PUNDUREN MULTZO BAT DA.

Rektaren atal edo parteari SEGMENTO deritza; eta bi muturretako hizkien arabera izendatzen da:

« A B »

16.6



Eman dezagun A laua, eta (z) rekta (gorriz marratua) plano-atal horretan.



(z) rekta horrek bi partetan zatizten du A planoa: (1) eta (2).

(1) eta (2) zatioi PLANO-ERDI deritze.

(1) tik (2) ra joateko (z) rekta igaro behar da.



16.7 — Era berean, eman dezagun (m) rekta.

P **punduak** bi partetan zatitzen du: (1) eta (2).

Bi parte hauei REKTA-ERDI deritze.



(1) tik (2) ra joateko, P pun**durik** igaro behar da ezinbestean.

16.8



Eremu guztiak EZ DIRA PLANOAK. Hementxe dituzu, ezkerretan:

laranja-azal puska bat (A).

gomatiko-puska bat (B).

zaltoki bat (D).

ttutturru ebaketa bat (E).

pilota bat (F).

Eremu hauek guztiek badute MAKURRERA deritzana; eta, baita paperez egin daitezkeanak ere (ez denak), urrun dira jatorrizko paper orri eskuarretik.

Ez dira, beraz, eremu lauak; eremu KONKORRAK edo MAKURDUNAK baizik.

16.9 — **Era berean, pundu-segida guztiak EZ DIRA REKTAK.**

Hementxe duzu, ezkerretan, marra-makur mordoska bat:



Baita zuzenkiz eta makurkiz osatutako marra hauek:

16.10 — Eremu eta makur horiek, dena dela, lau eta zuzenak bezalaxe-**pundu-multzo mugagabek osatzen dituzte:**



Marra eta eremu guztiak, hitz batez, INFINITU PUNTUK osatutako multzo dira.

17. SEGMENTOAK

17.1 — Lehenago azaldu dugunez, rekta oso batek ez du mugarik: ez alderdi batetik, ez bestetik; eta hortaz, berez eta bere osotasunean, ezin adierazizkoa da paperean edo arbelean. Pratikan, ordea, rekta ATAL bat marrazten da, honela:



Gerta daiteke, ordea, geometriazko beharretan, rekta baten PUSKA BEREZI BAT erabiltzea:

AB zuzen-puska edo atal berezi horri «segmento» deritza.

Kaso honetan (kasu honi!) EZINBESTEAN ETA BEREZ behar dira markatu segmento horren bi muturrak: A eta B.

17.2 — Segmentoek, horrela, LUZERA ZEHATZ BAT dute:



AB = 5 cm

CD = 4 cm

EF = 5 cm

HJ = 3 cm

MN = 2 cm

ST = 6 cm

17.3 — Segmentoak alderatu. Egin daitezke luzeraren aldetik.

BERDINAK direnean, = ikurra erabiltzen dugu.

Lehenengoa bigarrena baino HANDIAGO denean, > ikurra.

Lehenengoa bigarrena baino TXIKIAGO denean, < ikurra.

Gure kasoan, horretara, ondoko lerroak idatz daitezke:

$AB > CD$

$AB < ST$

$EF = AB$

$HJ < ST$

$CD < AB$

17.4 — Segmentoen BAKETA egin daiteke.

Horretarako rekta bat marrazten da:

eta lehenbizi lehenengo segmentoa ezartzen da:



eta lehenengo segmento horren muturrean, alde berera eramanez, bigarren segmentoaren muturra, honela:



Lortu den segmento berria (AD) bien baketa da:

$$AB + CD = AD$$

Eta luzerak neurtuz eta batuz:

$$5 + 4 = 9 \text{ cm}$$

17.5 — Gorago marraztu ditugun segmentoak baliatuz, egin itzazu, marrazkiz, ondoko baketa hauek:

$$AB + EF$$

$$HJ + EF$$

MN + AB

MN + ST

17.6 — Jakina, hiru segmentoren baketa era berean egiten da:

AB + CD + MN, esate baterako.

Lehendabizikorik AB + CD egingo dugu:



eta segidan, AD segmento berriaren muturrean, eta beti alderdi berberera, MN erantsiko dugu:



Ikus dezakezunez AN = 11 cm (= 5 + 4 + 2 cm)

Egizkitzu orain zerorrek baketa hauek:

CD + EF + HJ

EF + MN + ST

17.7 — Segmentoen KENKETA ere egin daiteke. Egin dezagun:

AB - CD

Rekta bat marraztuko dugu; eta gainean AB segmentoa markatuko dugu:



Orain, B muturretik abiatuz, baina orain BESTALDERUNTZ eramanez, CD segmentoa markatuko dugu:



eta hau izango dugu:

AB - CD = AC (5 — 4 = 1)

Era berean: **ST - MN**



17.8 — Horrela badakigu beraz edozein segmento eragiketa egiten.

Eman dezagu hau:

AB + CD — MN + ST — HJ

Lehendabizi (AB + CD) egingo dugu:



Orain, D-tik abiatuz, MN EZKERRETARUNTZ kenduko:



Orain, ST, ESKUINETARUNTZ erantsiko:

Eta, bukatzeko, EZKERRERATUNTZ **HJ** kenduko:



17.9 — Marraz itzazu paper batetan ondoko segmento hauek.

AB = 6 cm

HJ = 3 cm

MN = 5 cm

PQ = 2 cm

RS = 4 cm

eta egin itzazu eragiketa hauek segmento horien bitartez:

AB + HJ

AB — HJ

HJ + MN

RS + PQ

PQ + RS

RS — PQ

AB + HJ + MN

AB + PQ — RS

18. ANGULUAK

18.1 — Gorago esan dugunez, rekta batek bi zatitan zatitzen du planoa.



Bigarren rekta bat erantsiz gero, zer gertatzen da?



Zerorrek ikus dezakezunez, **lau partetan** zatiturik gertatzen da. Rektek osatutako lau zati horiek ANGULUAK dira.



Bi rektak elkar gurutzatzen duten **punduari, ERPIN deritza; eta** rektok anguluaren ALDEAK dira.

18.2 — Nola izendatzen dira anguluak?



Anguluak izendatzeko HIRU hizki (letra) erabiltzen dira. Erdikoa ERPINARI dagokio beti; eta beste biak ALDEEI.

Esate baterako:

Angulu GORRIA	:	AOB edo BOA
Angulu LARANJA	:	COB edo BOC
Angulu URDINA	:	DOC edo COD
Angulu BERDEA	:	AOD edo DOA

Izenda itzazu, beraz, zeure gisara, ondoko anguluak, horretarako nahi dituzun hizki nagusiak hautatuz:

18.3 — Zenbat angulu eratzen dute hiru zuzenek?

Asma zazu zerorrek; eta izenda itzazu ilaran.

18.4 — Eman ditzagun bi angulu hauek: AOB eta MNP (1).

Bi angulu horiek ez dute elkarrekiko lotura nabarmenik.



(2) AOB eta MON anguluek, berriz (ezkerretan) lotura berezia dute: **zuzen BERBEREK osatuak dira, ta ez dute elkarrekin pundu bakar BAT baizik:** erpina. Angulu hauei ERPIN-AURKARI deritze.



Behean marraztu ditugun angulu horiek ere ERPIN-AURKARI dira.



18.5 — Begira itzazu ondoko angulu hauek:



Ezkerretatik eskuinetara joanez, anguluak gero eta ZABALAGO egiten dira. Har itzazu guraizeak, esate baterako, eta poliki-poliki zabal itzazu:



Anguluak, hitz batez, ZABALEREN ARABERA berezten dira.



Angulua eratzen duten bi rektak ELKARZUTAK direnean (perpendicular, perpendiculaire) lau anguluok BERDINAK dira; eta zabalera horretako anguluari, angulu ZUZENA deritza.



Zure paper-orriak lau angulu zuzen ditu muturretan.



Etxeko leihatilek angulu zuzenak dituzte.



Liburuen orrialdeek angulu zuzenak dituzte.

Goizeko bederatzietan, orratzek angulu zuzena osatzen dute.

eta zuhaitz-enborren lerroak eta kaminoarena elkarzutak izanik, angulu horiek zuzenak dira.

18.6 — Angulu zuzena baino HESTUAGOAK (zabalera txikiagokoak, bestela esateko) angulu ZORROTZAK dira.



Guraizeak ireki-berrian.

Erloju-orratzek bederatziak hamar gutxitan angulu zorrotza eratzen dute.

Txaluparen branka angulu zorrotza da.

Teilatuak, behereko partean, angulu zorrotza eratzen du.



Eta mendi tontor zorrotzek gauza bera.

Angulu zuzena baino ZABALAGOAK (zabalera handiagokoak, bestela esateko) angulu KAMUTSAK dira:



Mendi txapalen tontorrek angulu kamutsak eratzen dituzte.



Gauza bera zure guraizeek zeharo zabaldu dituzularik.

Teilatuaren gailuraldean angulu kamutsa dago.

Eta erloju-orratzek angulu kamutsa eratzen dute hamar t'erdietan.

Angulua HETSI HALA, azkenean bi aldeak nahasi egiten dira:

(Orratzak hamabietan, esate baterako).

Angulua ZABALDU HALA, aldiz, bi aldeak azkenean elkarren segidan paratzen dira, eta orduan angulu LAUA dugu:

Angulu LAUAREN aldeak, rekta berbereko rekta-erdiak dira. (Erloju-orratzak seietan, esate baterako).

18.7 — Nola alda daiteke lekuz angulu bat? Eman dezagun AOB angulua:



eta eman dezagun P pundura aldatu nahi dugula.

Horretarako rekta bat pasaraziko dugu P pundutik:



Orduan angulu zuzenez osatutako paper txukun bat hartuko dugu:



eta AOB angulu gorrian pausatuko dugu:



eta M pundua markatuko dugu bertan.

Orain papertxo hori rekta berriaren gainean ezarriko dugu:



M pundua birlandatuz:



Aski da orduan PM rekta marraztea; eta MPN angulua dugu, AOB-ren kidea eta zabalera berberekoa:



Angulua lekuz aldatua dugu.

18.8 — Orain, anguluak lekuz aldatzen dakigularik, anguluak ALDERA edo GONBARA ditzakegu. Aski dugu horretarako biak ELKARREN PAREAN paratzea, eta bien zabalerak begiratzea:



Aldera itzazu angulu hauek, eta $=$, $>$, $<$ ikurrak erabiliz idatz itzazu **berei buruzko berdintzak edo desberdintzak:**



19. POLIGONO. ZIRKULU.

19.1 — Eman ditzagun m rekta eta P pundua, hartatik at:



eta pasaraz ditzagun P-tik rekta batzuk: a, b, c, d, ...



Rekta horiek eta m zuzena, pundu-ilara honetan gurutzatzen dira: A, B, C, D, ... Elkargunea, hitz batez, gero eta urrunago doa.

Halako batez **p** rektak ez du **m** ebakitzen:



p eta **m** rektak, horretara, PAREKIDEAK dira. Ez dira INON elkartzen; edo, nahiago bada, **m** rektako pundu guztiak baino URRUNAGO ebakitzen dute elkar. Elkargunea beti dago HARUNTZAGO.



Trenbideko zuzenetan, esate baterako, bi burdinak parekide dira.



Era berean, autobidearen galtzaraertzak.



Mahainaren hegiek ere, nahiz luzatuak izan, ez lukete elkar ikutuko: parekideak dira.

Gauza bera zelaiko makalak: enbor guztien ardatzak, goruntz joaki, parekide dira.

19.2 — Nola marraz daitezke aisa parekideak?



Aski ditugu horretarako erregela bat eta eskuadra bat: hau haren ertzean aurrera mugituz, parekideak lortzen ditugu.



Gauza bera bi eskuadraz: bata geldi atxiki behar da, eta bestea hegian barrena ibiltari.

19.3 — P **pundutik** (a) ren parekide bat marraztu nahi badugu, beraz, honela jokatuko dugu:



Lehendabizi eskuadra jarriko dugu (a) ren parean:



eta eskuadraren kontra, erregela bat:



Aski dugu orduan erregelari eutsi, eta eskuadra erregelan gora lerraraztea:



19.4 — Hiru rektek mugatzen duten eiteari hiruki edo triangulu deritza; eta hiru erpinak hizki nagusi bana erabiliz bataia daitezke.

ABC hirukia, edo MNP.



Ere berean, lau rektez laukia lortzen da:



Eta 5, 6, 7, ... aldez (eta erpinez) pentagonoa, hexagonoa, heptagonoa, eta abar, lortzen dira. Poligonoaren izena grekeraz moldatzen da: aldeen kopuruari dagokion zenbaki-izena aurretik (penta, hexa, hepta, okto, eta abar); eta «gono» hitza atzetik.

Eskuarki, dena dela, eta edozein erpin edo alde kopurutarako, **poligono hitza** erabiltzen da.

Zer esanik ez: hirukia hiru erpinetako poligonoa da, eta laukia lau erpinetakoa.

Hona hemen poligono batzuk:











dekagono

19.5 — Angulu eta alde guztiak berdinak dituzten poligono bereziak, poligono BERDINAK esan ohi dira:



hiruki berdina



lauki berdina



hexagono berdina



oktogono berdina

Aldeak ugaldu ala, poligono berdina «borobildu» egiten da:



Mila edo bostehun mila aldetako poligono berdinek, horretara, zirkunferentzia bat ematen dute. Ondoko urteetan gertakari «bitxi» hau hartuko dugu gauza askoren argibidetzat.

19.6 — Har zazu soka bat, eta tinka zazu mutur bat lurrean, beste muturraz, beti jiratuz, marra bat egiten duzula.

Lortuko duzun eitea ZIRKUNFERENTZIA da, eta eite hau du:



Zirkunferentziaren barreneko zabalguneari ZIRKULU deritza; eta inguruko lerroari, esana dugunez, zirkunferentzia.



Txanponak ZIRKULU dira eiteaz.

Zure bizikletaren bi gurpilak zirkulu dira, osoan hartuta; edo zirkunferentzia gomatikoaren ardatz soila hartzen bada kontutan.

PRATIKAN, eta geometriari dagokionez, KONPASAZ marrazten dira zirkunferentziak, erdian ERDIGUNE-tzat pundu aldagabe bat hartuz:





19.7 — **Marrazkuntzak berak erakusten duenez, zirkunferentzia pundu** GUZTIETATIK ERDIGUNERA tarte barbera dago.



Konpasaren besoak mugitu ez dituzunez gero (elkarri buruz, noski) tarte hori, zirkunferentziaren RADIOA hain zuzen, beti BERBERA da.

AO = BO = CO = DO = EO = r (radioa)

Edozein zirkunferentziatan, hortaz, tarte BERBERA dago erdigunetik zirkunferentziako pundu guztietara: RADIOAREN LUZERA, hain zuzen (=r=).



Era berean: O erdigunetik pasarazten diren rekta guztiek luzera BERBERA **dute. Eta bi atal berdinetan zatitzen dute zirkulua.**

Luzera aldagabe hori RADIOAREN BIKOITZA da (= bi radio), eta DIAMETRO deritza (d).

Radio guztiak berdinak diren bèzala, diametro guztiak ere berdinak dira:

AB = MN = RS = 2r = d

20. PRISMA. PIRAMIDE.

20.1 — Lauetik irtenez gero, beste geometri-maila batetara igarotzen gara: eite berri hauek HIRU IZARI (dimentsio) dituzte (zabal, luze, garai), eta ezin daitezke paper-orri batetan jar.





Kuboa, esate baterako, aditzera eman daiteke marrazki-bidez (hemengo irudian bezala); baina kuboa egon EZ DAGO orri-paperean.



Ezkerretan marraztu ditugun hirukia, laukia eta zirkunferentzia berriz, orri-paperean DAUDE: BI IZARITAKO eiteak dira hauek.



20.2 — Azter dezagun kuboa:

Kuboak 8 erpin ditu. Aipa ditzagun ilaran:

A, B, C, D, M, N, P, R.

6 albo ditu, eta albo hauek sei lauki berdin dira:

A B C D
M N R P
A M R D
B N P C
D C P R
A B N M



eta 12 ertz ditu:

AB, BC, CD, DA
MN, NP, PR, RM
AM, BN, CP, DR

Dadoa kubo bat da.



Eraiki zazu kubo bat, goiko eitea duen paper puska bat ebakiz, eta lerro guztiak tolostuz. Margo itzazu sei alboak kolore desberdinez.

20.3 — Sei alboak berdinak izan ez arren, kuboaren antzeko eite bat lortzen da aisa: PRISMA deritzana.

Igeltso puska hau prisma bat da.



Etxaburu honek prisma-eitea du.

Liburu hau, eiteari dagokionez, prisma bat da.



Prisma horiek, kuboak bezala:

6 albo
8 erpin dituzte
12 ertz

Baina albo eta ertzok ez dira berdinak.

Beste era batera esateko, ez dira prisma «berdinak». Kuboa bai.

20.4 — Bestelako prismak ere gerta daitezke. Ikus ezkerretan:



Prisma honek, esate baterako, bi pentagono ditu oinarritzat, eta

7 albo
10 erpin ditu
15 ertz



Beste honek berriz, bi hexagono oinarri:

8 albo
12 erpin
18 ertz

Zenbana dute ondoko hauek?





20.5 — Dagoeneko somatu dukezunez, prismaren oinarri diren poligonoen **alde-kopurua handitu hala, prisma «borobildu» egiten da. Oinarritzat 1.657** alde dituzten poligonoak dituen prisma ia borobila dela esan daiteke, eta benetan hodiaren itxura du.





Oinarritzat BI ZIRKULU dituelarik, eite berri horri ZILINDRO deritza (ikus ezkerretakoak).



Hodia zuzenak zilindroak dira.



Zigarroak ere zilindro dira.

Arkatz batzuek prisma eitea dute.

Beste arkatz batzuek berriz zilindro-eitea.

Bila itzazu zeure kabuz zilindro eitea duten bost gauza.

20.6 — Ikus dezagun orain beste geometri-sail bat: PIRAMIDEAK.

Ziur gaude noiz edo behin bederen Egiptoko piramideen irudiren bat ikusia duzula.



Piramideak eta prismak, ageria denez, desberdinak dira funtsez. Hona hemen piramide batzuk:



Piramideen oinarria, beraz, POLIGONO bat da; eta honen gainean, ertz guztien bilgune, ERPIN BAKAR BAT dago.

Baina bai prismak bai piramideak LAU-ATALEZ, lau-puskaz, osaturik daude. Eta zuzen-puskaz osaturik dauden eite lauei POLIGONO esaten zaien bezala, lau-puskaz osaturiko eiteei POLIEDRO esaten zaie.

20.7 — Zenbat albo, erpin eta ertz dute A, B, D eta E piramideak?



Azter dezagun bat elkarrekin.

5 albo:

AEB, ABE, ABC, ACD, BCDE

5 erpin:

A, B, C, D, E,

8 ertz:

AB, AC, AD, AE, BC, CD, DE, EB.

Zenbana dute (B), (D) eta (E) piramideek?

Honen araberako paper bat ebakiz eta tolostuz, eraiki zazu piramide bat:



20.8 — Oinarritzat ZIRKULU bat hartzen delarik, eite berezi bat sortzen da, eta KONO deritza..

Hona hemen batzuk.



Molde honetako paper puska bat ebakiz, eraiki zazu kono bat.



20.9 — Beste eite ezagun bat bukatzeko: pilotarena, pustarriena, baloiena.

Geometri-eite honi ESFERA deritza.

Esferaren erdi-erdian dagoen punduari **ERDIGUNE deritza.**

Esferaren gainaldeko pundu guztietatik erdigune horretaraino tarte berbera dago: RADIOA.



Eta erdigunetik igarotzen diren rektek, DIAMETRO bat mugatzen dute. MN diametro bat da; eta, bistan da, 2 radioren luzera du:

$$d = 2r$$

Gogoan atxikazu, hortaz, funtsean bertan ZIRKUNFERENTZIAK ETA ESFERAK duten ahaidetasun sakona.

MATEMATIKA - HIZTEGIA

ALBO	=	cara, face
ALDE	=	lado, côté
ANGULU	=	ángulo, angle
AURKARI	=	opuesto, opposé
BAKETA	=	suma, somme
BAKARI	=	sumando,
BANAKETA	=	división, division, partition
BANAKARI	=	dividendo, dividend
BANATZAILE	=	divisor, diviseur
BERDINTZA	=	igualdad, ecuación; egalite, equation
BERDIN (poligono)	=	regular, regulier
BIDERKETA	=	multiplicación, produit
BIDERKARI	=	multiplicando
BIKO	=	pareja, couple
BILKETA (multzo)	=	reunion (de conjuntos) operación. reunion (d'ensembles)
BILKURA (multzo)	=	reunión (de conjuntos), resultado
DESBERDINTZA	=	inecuación, inequation, inegalite
EBAKETA	=	intersección (conj.), intersection (ens.)
EITE	=	forma, forme (Geometr.)
ELKARBIDE	=	relación (conj.), relation (ens.)
ELKARGUNE	=	punto de intersección, poins d'intersection
ELKARKETA	=	producto (conj.), produit (ens.)
ELKARZUT	=	perpendicular, perpendiculaire
EMAITZA	=	resultado, resultat

ERAGIKETA	=	operación, operation (matemática)
ERDI	=	semi- demi-
ERDIGUNE	=	centro (geometría), centre
ERPIN	=	vértice
ERPIN-AURKARI	=	opuestos por el vértice
ERTZ	=	arista
GEZI	=	flecha, fleche
HUTS	=	vacío, cero; vide, zero
HIRUKI	=	triángulo, triangle
HIZKI	=	letra, lettre
IZARI	=	dimensión, dimension
IZENDATUZ EMAN	=	BANAKETAZ EMAN = por enumeración (conj.) par enumeration
KAKOTX	=	coma, virgule
KAMUTS	=	obtuso, obtus (geometría)
KENEKETA	=	resta, soustraction
KENKARI	=	minuendo
KENKIZUN	=	sustraendo.
KETA	=	cantidad, quantité
KOPURU	=	cantidad numérica, quantite (numerique)
LAUKI	=	cuadrilátero, quadrilatere
LAU-ERDI	=	semi-plano, demi-plan
LAU	=	plano, plan
LOTKIA	=	relación, rapport
LOTURA	=	relación, rapport
LUMERO	=	cifra, chiffre, cardinal
LUZERA	=	longitud, longeur

MAKUR		curvo, courbe
MAKURKI	=	trozo de curva, partie d'une ligne courbe
MAKURRERA	=	curvatura, courboure
MARRAZKI	=	esquema, dibujo, scheme
MARRAZ (TU)	=	dibujar, dessiner
MENPEKO-MULTZO	=	sub-conjunto, sous-ensemble
MULTZO	=	conjunto
NEURKIN	=	unidad de medida, unite de mesure
NEURPIDE	=	unidad de medida, unite de mesure
PAREKIDE	=	paralela, paralele
TAULA	=	tabla, tableau
ZABALERA	=	ancho, large
ZATIKETA	=	división (conjuntos), partition (ens.)
ZENBAKI	=	número, nombre
ZENBAKIDE	=	equivalente, equivalent (ensembles)
ZENBAKETA	=	numeración, numerotation
ZENBAKUNTZA	=	numeración, numerotation
ZORROTZ	=	(Geom.) agudo, aigu

ZUZENKIZUNAK

1.

1.1.

«iburuek» ... ... liburuek
«elemendu» ... ... **elementu (BETI)**
«Ondarrabi-ko» ... ... Hondarrabia-ko

1.2.

«Aegia» ... ... Alegia
«Mutzo» ... ... Multzo

1.3.

«ere berean» ... ... era berean
«menpeko multzo» ... ... **azpi-multzo (BETI)**

Bigarren laukian

«O menpeko biltzen du» ... ... O azpi-multzoa biltzen du
«ere berean» ... ... era berean
«osoriko» ... ... osorik

1.5.

«idatz deiteke» ... ... idatz daiteke

2.1.

«Garbiako» ... ... Garbiago
= «edo» ... ... = **berdin (BETI)**
«saia zaitzez» ... ... saia zaitez

4.1.

«norerkin» ... ... norekin

4.2.

«(joanes, oier...)» ... ... (Joanes, Oier...)

4.4.

«baitude» ... ... baitaude

4.6.

$E = \{ (3,5) \ldots \}$ Bikote bat falta da = (7,12). Erantsi egin behar da.

4.7.

«E = (,), (,)...» ... $E = \{ (\ , \ ), (\ , \ ) \ldots \}$

5.

5.1.

«Ekarpide» ... ... Elkarpide

5.2.

«ditzaun» ... ... ditzagun
«artan» ... ... artean

5.4.

«erasta» ... ... erastea

5.5.
Lehenengo irudian:
«larumbata» ··· ··· ··· ··· ··· ··· larunbata

5.6.
«sana dugunez» ··· ··· ··· ··· esana dugunez

6.4.
«taxueta» ··· ··· ··· ··· ··· ··· taxuketa

6.6.
«amabi» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· hamabi

7.
7.2.
«elemendurik» ··· ··· ··· ··· ··· elementurik

7.4.

«H	P
3	4
2	1
6	0» ··· ··· ··· ···

H	P
3	4
+ 2	1
6	0

Era berean osatu behar dira gainerako zazpi baketak.

8.
8.3.
«i rakurriko» ··· ··· ··· ··· ··· irakurtzeko

8.4.
«Kenteta» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· kenketa

9.
9.3.
«chuneko» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· ehuneko

11.
11.5.
«Laurdena» ··· ··· ··· ··· ··· ··· laurdena
«Froga» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· froga

12.
«Banaketa» ··· ··· ··· ··· ··· ··· **ZATIKETA (BETI)**
«banakari» ··· ··· ··· ··· ··· ··· **ZATIKIZUN (BETI)**
«banatzaile» ··· ··· ··· ··· ··· ··· **ZATIKARI (BETI)**
«emaitza» ··· ··· ··· ··· ··· ··· **ZATIDURA (BETI)**

BANAKARI	**BANATZAILE**	**ZATIKIZUNA**	**ZATIKARIA**
	EMAITZA		**ZATIDURA**
HONDARRA		**HONDARRA**	

12.3.
(beherean)
«markatu» ··· ··· ··· ··· ··· ··· markatuz

12.5.
«Kondar» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· hondar

«Kondar» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· hondar

14.

«SISTIMA» = **SISTEMA (BETI)**

15.

«albo» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· **AURPEGI (BETI)**

1 cm × 1 cm = 1 cm^2 = **1 zentimetro koadro (BETI)**

15.2.

«herremanak» ··· ··· ··· ··· ··· harremanak

15.3.

«LITRO = dm^3 = "1"» ··· ··· LITRO = dm^3 = l

15.4.

«multzotako» ··· ··· ··· ··· ··· multzoetako

16.

«PLANO» = **LAU (BETI)**
«REKTA» = **ZUZEN (BETI)**

16.4.

«helere» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· halere
«zatizten» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· zatitzen
«EREMU» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· **AZAL (BETI)**

16.9.

«ezkerretan» ··· ··· ··· ··· ··· ··· beherean

17.

17.3.

«alderatu. Egin» ··· ··· ··· ··· alderatu egin

17.8.

«giten» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· egiten
«dezagu» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· dezagun

18.4.

«ezkerretan» ··· ··· ··· ··· ··· beherean
«ERPIN-AURKARI» ··· ··· ··· ··· **ERPIN-AURKAKO (BETI)**

18.6.

«HETSI HALA» ··· ··· ··· ··· ··· HETSI ALA
«ZABALDU HALA» ··· ··· ··· ZABALDU ALA

19.

PAREKIDE ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· **PARALELA (BETI)**
ESKUADRA ··· ··· ··· ··· ··· ··· **ESKUAIRA**

20.

«ALBO» ··· ··· ··· ··· ··· ··· ··· **AURPEGI (BETI)**

HIZTEGIA

«egalite»	égalité
«equation»	équation
«reunion»	réunion
«inequation»	inéquation
«inegalite»	inégalité
«elkarbide»	elkarpide
«poins»	point
«resultat»	résultat
«operation»	opération
«fleche»	flèche
«zero»	zéro
«enumeration»	énumération
«quantite»	quantité
«numerique»	numérique
«quadrilatere»	quadrilatère
«longeur»	longueur
«courboure»	courbure
«scheme»	schème
«conjunto»	conjunto, ensemble
«unite»	unité
«paralele»	parallèle
«equivalent»	équivalent
«numerotation»	numérotation.